

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2021**

---

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2021eko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; Kontu Orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuek (GFA), foru erakunde autonomoen kontuek (Uliazpi Fundazioa eta Kabia), haren merkataritzako foru sozietateen kontuek (IZFE, Informatika Zerbitzuen Foru Erakundea SA; Bidegi, Azpiegituren Agentzia SA; eta Etorlur Gipuzkoako Lurra SA) eta foru fundazioek (Kiroldgi; Sueskola Gipuzkoa; Adinberri; Naturklima, Gipuzkoako aldaketa klimatikoa behatzeko fundazioa; Ziur eta Mubil).

HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du **Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren** gainean, unean uneko salbuespenak azpimarratu dituela. GFAREN urteko kontuei dagokienez, txostenak dio guztizko Diruzaintza Geldikinak 18,5 milioi euro egin behar duela gora, aurrekontuan erregistratu gabeko zerga-zordun eta -hartzekodunak islatzeko. Gainera, ibilgetu materiala eta ukiezina zenbait kontu-sailetan ez dago inbentario batean jaso; kontu-sail horien kostua guztira 1.726,5 milioi euro da. Halaber, Balantzeak ez ditu jasotzen 9 zahar-etxeren doako lagapena, ezta beste 3ren obrako administrazio-emakidak ere. Bidegi SAREN urteko kontuei dagokienez, ezin izan da kuantifikatu GLHko ahalmen handiko A-15 eta N-1 errepide-zati jakin batzuk salgaien garraiorako ibilgailu astunentzat erabiltzeko kanona arautzen zuten 7/2016 eta 6/2018 foru-arauak baliogabetzeak ondare garbian izan duen eragina; kanon horiek eragindako diru-sarrerak 2018 eta 2021 artean aitortu ziren. Azkenik, Etorlur Gipuzkoako Lurra SAREN urteko kontuetan ezin izan da ondorioztatu sozietatearen aktibo arruntaren balorazioaren zuzentasuna (3,8 milioi euro).

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren **finantza egoera** aztertu du eta azpimarratu du itunpeko zergen diru-bilketak 2021eko ekitaldian % 15,2 gora egin izana nahikoa izan dela inbertsio errealean exekuzioa finantzatzeko, eta zorpetzeak gora egitearekin batera, guztira 164,9 milioi euroren aurrekontu-emaizta sortu duela ekitaldian.

**Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari** dagokionez, jakinarazi da Ministro Kontseiluak, 2020ko urriaren 6an

hartutako Erabakiaren bidez, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako zerga-arauak kentzea onartu zuela, munduko pandemiaren egoerak eraginda. Neurri horrek bertan behera utzi zituen aurrez adostutako helburuak, krisiaren eraginaren ondorioz zaharkituta geratu baitira.

Fiskalizatutako erakundeek zuzentasunez bete dute beren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia, eta langileen arloan eta Administrazioako kontratazioan unean uneko ez-betetzeak antzeman dira; hala nola, pertsonaleko atalean: GFAko langileak ordainsari jakin batzuetan PFEZtik salbuestea, eta lan-kontratuko langile finkoak kontratatzea Mubil fundazioan, birjarpen-tasarik ez dagoela; halaber, Administrazioako kontratazioan: GFAk hamahiru kontratu behar hainbateko aurrerapenik gabe izapidetu dira; 2 kontratutan ez da dagokion prozedura irekia erabili, ez eta prozedura ireki sinplifikatua beste 8 kontratutan; gainera, Kabian, mugaeguneratutako 21 kontratu gauzatzen jarraitzen dute, eta ez dira abiarazi horiei dagozkien kontratazio-espedienteak; halaber, Etorlur sozietateak 5 kontratu txiki adjudikatu ditu, prozedura ireki sinplifikatu bidez gauzatu behar ziratekeenak.